

SANTIXAUAK 94

1934garren URTEKO ZEZEN EGUNA
BANDUA

Santos Suinaga Ariño, Ermuko alkatia naizen nik, jakitzera emoten dot: Beste inun ospatzen ez dan Zezen Eguna oin arteko jai herrikoi, alai ta renombre haundikua izaten jarraitxu daixan, Ermuko andrazko, gizonezko ta une guztixoi orduan egunian eingo dian ekitaldixetan parte hartzera konbidatzen zaitxuet.

Onduan egun horretako mundik norakua:

-Goizeko sei txerdixetan Mezia, Aitxa Murgoitioi emonda.

-Goizeko zortzi txerdixetan Mezia, D. Domingo gure organistak emonda.

-Goizian zihar andrazkuak aurreko egunetako arropen leixibia eitzeko, labadorietara joango dira, aureskulariak euren billa juan arte.

-Goizeko hamaika txerdixetan Aureskua hasiko da. Egun horretan, azkenengo urtietan ohitxuria izan danez, txistujolia Cosme Zubizarreta eta tanbolin jolia Pablo Areitioaurtena izango dira. Aureskuan bigarrenak eta atzezkuak bigarrenak kaleik kale urtengo dabe, andrak labadorietatik ekarriaz.

-Goizeko hamabi txerdixetan, Auresku ostian, Bana-banakuari ekingo jako. Bakoitzak dantzan dakizazan habilidadiak ein bihar ditxu. Gero danak soka lotuta, kaleik kale kalejira eingo dabe, etxietako bentanetatik ura jaurtitzen jakuen bitxartian.

-Eguerdiko ordu bixetan aurretiaz plazian atzeko zerkan sardiñak erreko dia egur ikatzian. Gero sardiñak hartu eta erreka ertzetan bazkalduko da.

-Arratsalde osuan zihar aureskuak ta bana-banakuak dantzatuiko dia, txistu ta tanboillakin lagunduta.

-Illuntzian, gabeko hamararak arte txistularixekin erromerixa.

Ta honen barri euki daizuen, izenpetzen dot.

Ermuan, 1934garren urteko garagarillaren 30ean.

Ermuko Uriko Alkatia


Santos Suinaga Ariño



Zubiaurre, 12
Tfnoa. 17 01 59

ERMUA

MENDIOLA JATETXEA



Erdikokale, 19, Tlf.: 943-172243
48260 ERMUA

MODAK

Desirée

Gehigarriak

Kantabria Zeharbidea
Telf. 17 62 28 • ERMUA


SANTIXAUAK 94

Orduko curiosidade batzuk

● Ermuan hiru labadero egon zian: Palazio ostian errekan, Errebalian ta trenbidia-
ren erromaren ostekaldeko onduan, baina Errebalekora juaten zan andrazko gehi-
xengua. Labadero honen onduan "Matxi-
ñeneko" errota eta kunbua zeuazan. Ho-
rrek hornitzeko urak leku bitxik ekarri
zian, bata "Malengo" baserrixan hasi ta
"Urbibixate" edo "Purgatorixoneko" etxe-
ko (gero Patakonia) ondolik pasatzen zan
erreten batekin ta bestia San Pelaixoko
kunbotik errotaraino eindako beste erreten
batetik.

● Andrak lei-
xibia (garbit-
zeko arropia)
zinkeko bal-
dietan eruaten
zeben buru
gaiñian ta mi-
nik ez emote-
ko "zorkixa"
ipintzen ze-
ben, buru gai-
ñian trapu edo
amantal zahar
bat tolostuta.

● Euren per-
kalezko soiñe-
kuen gaiñian
amantal barri-
xa ipini ta pla-
zara holan
etortzen zian
dantzan eitze-
ra. Asko "ex-
presamente"
juaten zian la-
baderora gero
"Aureskuan"
etaratzeko.



Bapo bapo jan ta edan einda, tripa barrenak asetuta

● Pelotarixak alkondara, praka ta abarke-
ta zurixekin egoteko ohitxuria zeukien.

● Automobil estranjeruren bat pasatzen
bazan kamifutik (bide barrixetatik), gera-
tu, barrukoak etara, sartu soka ta plazan
aureskua eitzen jakuen.

● Bero haundixak eitziaz gain, ur gitxiko
ta tapau bako erreka asko zeuazenez, erre-

ka baztarretan bazkaltzen zan. Sardiñak,
tortillak, bakillau eta ardaua franko.

● Bana.banakuak dantzatzerakuan, kristo-
nak eta bat asmatzen zitxuezen, jentiki
barre errementak eitzen zitxun bitxartian.

● 1934. urte horretan, Santos Suinaga
Ariño ("Matxiñeneko" errota semia)
zan alkatia. Alkateorde modura Pedro Idi-
goras Azkarate ta Irene Baskaran txanda-
katzen zian. Sekretarixua Domingo Bus-
tindua zan, ta batzutan Maximo Ariñok

eitzen zitxuan
sektarixu
biharrak. Kon-
tejal modura,
Modesto Sala-
berria, Jose
Ramon Iturria-
ga, Antonio de
Lizaso, Ignacio
Olañeta.

● Ermuan or-
duan 1.100
pertsona ingu-
ru bizi zian.

● 1933. urtian
Udaletxiaren
diru sarrera eta
urteerak
29.045,05 pe-
zeta izan zian.
Artekaleko
(gaur Erdiko-
kale) adokiñak
kendu eta por-
lana botatzia
pentsau zan.

Kontuak 5.000 pezetara igotzen zeban ta
Udaletxiak ez zeukanez txakur haundirik
bez, herriko andra batek, Maria Orbe y
Arriagak prestau zeutsazan, ondorengo
bost urtietan itzultzekotan.

Lukre Izagirre, Maria Luisa Urreta, Jose-
ba Idigoras, Maria Bengoetxea, Agurne
Agirregomezkorta, Agus Agirregomez-
korta, Mari Tere Izagirre eta Miren Arei-
tioaurtenari, ESKERRIK ASKO!

Estibalitz Gonzalez



TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 38 24

ZABALA
BURDINDENDA

ETXE HORNIDURA
BRIKOLAJEA
OPARIK
ELEKTRIZITATEA

Zubiaurre, 27
Tfnoa. 17 09 17

KAFETEGIA



XAGUA

Gurekin bidaiatu

Zubiaurre kalea,
23 behea

AGUIRRE KIROLAK

BIZIKLETEN
KONPONKETA eta SALMENTA



Bizkaia Etorbidean, 11
Telefonoa 17 52 02

ERMUA